

Arratsalde on guztioi:

Lehenbizi, zuentzat agurra. Hasteko, Andra Mari ikastolako agintariei, irakasleei, langileei, gurasoei, eta haurrei, ederki kantatu digutelako *Nafarroa Oinez*en kanta. Orobat, Udalari eta herritar guztiei, harrera ezin hobea egin digutelako, duela hamar urte egin ziguten moduan.

Agur-hitzak egin behar ditut eta atsegin osoz egiten ditut. Agur-hitzok, horiek merezi dituzuelako, gogo handiz egiten duzuen lan ederragatik.

Eskerrak ere gaur eman diren hitzaldiengatik eta liburuengatik. Zinzinez Nafarroa eta euskararen alde ahalegin interesgarria egin duzue hizlariok eta egileok.

Natorren, alabaina, punturta, eta esan dezadan gaur aurkezten dugun eskuko orria *Nafarroa eta Euskaltzaindia*, zabalkunderako tresna dela, euskara eta euskal kultura zabaltzeko lanabesa. Har ezazue, beraz, orain, ekitaldi honen irteeran eta barreiatu eta zabal ezazue nonahi eta noranahi.

Hor duzue euskaraz zein gaztelaniaz Euskaltzaindiaren lanak, biltzarrak, bilerak eta ekitaldiak, kideak eta argitalpenak, Nafarroako lurraldean eginak.

Hor ere gure itxaropena, modu onuragarri eta erraz batez euskara eta Euskaltzaindiaren egitekoak nafar guztiei helarazteko.

Eguerdian, Andra Mari ikastolaren eraikinean, haurrak, txintxo-txintxo gure zain zeudela, ohartu naiz aurtengo Nafarroa Oinez honetarako aukeratu duzuen panpinaz. Argiñe jarri omen diozue izena. Ziur nago hura dela, bere ibilera eta hitz ezin euskaldunagoen bidez, euskararen mezua zabaltzeko modurik aproposena.

Hala izan dadila eta holakoa izan dezagun bera, guztion gozamenerako.

Mila esker zuei gaur gurekin egotearren. Mila esker eta gogo biziz euskara eta euskararen aldeko ahaleginetan elkarrekin jarraitu dezagun.

Txikiak handi jarri duzue goiburua. Alabaina, gu ez gara txikiak, handiak baino, handiak ditugulako asmoak eta ekintzak. Izan ere, euskararen esparruan 90 urte bete ditu Euskaltzaindiak eta aldi luze honetan gure argi-ilun eta on.gaitz tarteko, oro har, euskarari zerbait ekarri diogulako, gure hizkuntzak aurrera egin dezan gizarte honetan.

Etxarri Aranatzen, 2009ko irailaren 25ean
Andres Urrutia, euskaltzainburua